

XAGU, XAGUZAR lk. **sagu, sagúzar**.

XAMAR lk. **sámar**.

XAPI! (b). interjekzioa. Katua uxatzeko esan ohi dena. • Voz con la que se espanta al gato. *Xapi katua!, alde ortik!* Don.ri plazentziarren gertakizun bat gogoratu zaio hitz honetaz aritzerakoan. *Plazentzian aguriak, jubilauak, zubittik e, an badakik zubixa, betik jentia erre kara begira-begira, da batek bajiar duan esaten: —Nere andriak gero e, gu ezkondu giñan inguruan e, etzuan edozein modutakua. —Ez zeran modukua izango zuan— bestiak. —Miss atara juen orduan. —Neuria be bai orduan mis zuan, oiñ xapi esateetsat.* Ant. **mis-mis**.

XAXATU (b). du aditza. (Leintz) Azuzar. Sin. **áxaxa émon**.

XE (Eibar) XEE, ZE (EIB.).**1. xe, xéia** (b). adjektiboa. Xehetua, txiki-txiki egin. • Troceado en trozos muy pequeños. *Artaxeia gustora jaten dabe txalak. xe-xe eiñ* (b). aditza. Xehetu, zati txikiak egin. *Patatak xe-xe eiñ ezian ez tittu jaten umiak.* **2. xe, xéia** (c). adjektiboa. Txikia. • Menudo, -a, pequeño, -a. *Eskailu asko arrapau dou, baiña oso xeia./ Oso xeia dago aurten sagarra.* Ant. **larri**.

XEÉTU (a). du aditza. Trocear, hacer pedazos. *Xeetuiozu okelia umiai./ Aupa mutill, xeetu pelotia!*

XÉLBA, -E, xelbía (d). adjektiboa. ZELBE. Inorekin amestaderik ez duen pertsonaz, inorengana arrimatzen ez denaz esana. • Se dice de la persona desconfiada y que rehuye a la gente. *Ain zan persona xelbia eze, mezia akabau ta etxera bueltatzen zan iñokin berberdi be ein barik.* Juan San Martinek "impertinente" esanahia ematen dio: An eban Konejua zelibekeriz uezabari nundik kejak eruango. (SM Zirik).

XÉLEBRE, xélebria (c). adjektiboa. Pertsona arraro edo bereziaz esan ohi da. Zentzu despektiboa du. ZELEBRE, oster, barre eragiten duena da, grazia handia duena. • Persona rara, especial. Tiene matiz despektivo. *Pako xelebre samarra izan zan bere denpora guztian. Etzeban ardaorik eraten, animia beltzitzen zebala ta.* lk. **zélebre**.

XÉMEIKO, xémeikua (d). izena. XEMEI, XEMEKO, SEMEKO. Sei marabediko txanpona, jatorriz. 5 zentimoko (pezetarenak) txanpona, garai baten. Egun, batere balio ez duen gauzaren sinonimoa. *Ezek ezaban balio ta. Patatiakin kiluakin txakurraundixa ta iru xemeiko.* Mertz./ *Lauzikua zan dirua; gero xemeikua ta txakurraundixa zan bezela, lauzikua.* Mertz./ *Nere kotxiak eztau xemekorik balio.* Azkenengoaren gisako esaldietan entzuten da ia bakarrik. Gaur egun *xentimo* edo *zentimo* esan ohi da normalean, esanahi honetan. lk. **lámaiko, láuziko**.

XENTIMO lk. **xémeiko, zéntimo**.

XEPA lk. **zepa**.

XESTRA, xestria (d). izena. Istilua, apostua, sesioa, droga. *Beti xestra bila zebilen drogoso bat zuan.* Gutxi erabilia. Sin. **dróga**.

XESTROSO, xestrosua (d). adjektiboa. XESTRERO. Istiluzalea, apostuzalea, drogoso. Sin. **drogoso**.

XIMEL ZIMEL. ZIMEL ere bai, nahiz eta gutxiago.**1. ximel, ximéla** (c). adjektiboa. "Entre verde y seco, hablando de plantas. •" (Azkue). *Gaztaiña edo sagar ximelak:* ximurtzen hasiak daudenak. Zutik dauden landareak IGARTU egiten dira eta ez XIMELDU.**2. ximel, ximéla** (c). adjektiboa.

Pertsona argal eta gihartsuengatik esan ohi da. *Oinddio ximela jaok Hilario. Ari pelotan irabaztia eztok erreza.*

XIMÉLDU (c). da aditza. ZIMELDU. Zimeldu, zimel bihurtu.

XÍMUR ZIMUR. **1. ximur, ximúrra** (a). izena. Arruga. *Zineko artistak egundokuak eitteittue arpegiko ximurrak kentzearren.* lk. **ximúrruna**. **2. ximur, ximúrra** (a). adjektiboa. Arrugado, -a. *Zelako arpegi ximurra daukazu./ Nora zoiatz praka ximurrekin.* **sagar erria baiño zimurragua** esapidea. (Eibar) Oso zimurra. *Sagar erria baiño zimurragua arpegixa.* (AAG Eibes). **3. ximur, ximúrra** (b). adjektiboa. Zekena. • Tacaño, -a, roñoso, -a. *Gorantziaik pe eleukek emungo ximur orrek alakuorrek.* Sin. **zéken, siku.**

XIMÚRRUNA, ximúrrunia (c). izena. Zimur unea. • Arruga, zona con arrugas. lk. **ximur.**

XIMÚRTU (a). da-du aditza. ZIMURTU. Arrugar(se). *Praka zuri orrek belaxe ximurtzen die.*

XINPLE lk. **sínple.**

XINPORNIA, xinpornia adjektiboa. (Antzuola) "Emakume zitala edo jenio txarrekoa. *Utsaatik eta putzaatik asarretzen da, Mari xinporna edarra da ori!*" (Lar Antz).

XIPLARA, xiplaria izena. (Antzuola) "Reproche. *Beti xiplara baten dabil./ Arek bota zotsan xiplaria./ Ointxe be xiplaran esan doztazu.* (Lar Antz) Gaztelerazko 'con coña' esanahia ere hartzen du." (Lar Antz).

XÍPU (d). adberbioa. En celo la gata. *Katuana xipu. Katuak xipu dare. Udaberrixan katuak xipu.* Don. lk. **arkéra, ígel egon, uméske, altan egon.**

XIRBISTU XIBRISTU. lk. **txirbítu.**

XIRRI lk. **zírri.**

XIRRISTU lk. **txirrístu.**

XIRRITA (Gatzaga, Leintz) "Juego consistente en poner dos alfileres en el suelo y tratar de montar uno sobre el otro con la ayuda de un tercero." (Aran Gatz).

XÍXILI (c). Emakume izena. • Cecilia. *Andra edarra Olañetako Xixili.* Gizonezkoa **Xíxilio.**

-XKA (a). atzizkia. XKARA. Kolore horretarantz jotzen duena: <i>gorrixka, gorrixkara, berdexka, berdexkara... </i> ZURI eta ORI hitzekin berriz, *zurixka, zurika, orixka, orika...* lk. **orika, zuríka.**

XUR, xurra adjektiboa. (Angiozar, Antzuola) Zekena. Sin. **zéken, siku, ximur.**